

# Taloaren Eguna egingen dute etzi Leitzako plazan

**EGITARAUA** ▶ Eguerdira arte talo dastaketa eta salmenta, lehiaketak eta plater erakusketak izanen dira


**HERRI KIROLAK** ▶ Nafarroako Herriz Herri Txapelketako azken saioa jokatu dute ▶ 7

**BIDEGOIAN** ▶

19.200 euro bildu dituzte Eztiolakoei laguntzeko

Baserria uztailean erre zen, sute baten ondorioz ▶ 5

**IKER KARRERA** ▶  
MENDI LASTERKARIA



N. URBIZU

«Palentziako proba oso gogorra da, izututa nago»

Espainiako Kopako Mendi Lasterketan ariko da, etzi ▶ 5



## Haurrak protagonista, festen lehen ekitaldietan

**ALKIZA / ZIZURKIL** ▶ Ikasturte berriarekin batera, festek ez dute etenik eskualdean. Hala, Alkiza eta Zizurkil bete-betean sartu ziren, atzo, jaietan. Batean eta bestean etxeko txikiak izan ziren protagonista. Zizurkilen, Pirritx eta Porrotx pailazoaren ema-

naldiak ehunka ume bildu zituen —argazkian—. Alkizan ere izan zuten gaztetxoek zertaz gozatua; izan ere, jolasak antolatuta zituzten beraiengatik. Hala, lokotx-bilketan nahiz zaku lasterketan ederki asko igaro zuten jaien bigarren egunean. IMANOL GARCIA ▶ 4

## Gure gomendioa



Kavkaziar iraultza beretila  
Bernat Berche



Zuzi uhakak  
Leand Nolasena Andreu



Memorias de una joven doctora  
Natal D-Salazar



En el reino de Schopenhauer  
Yusufna Raza



ekar

ekar ezagutzen dugulako

ARETO FUTBOLA ▶

# Hil honen 23an ekingo diote Hegoaldekoek denboraldiari

Vicky Amilibiaren erreleboa hartuz, hemendik aurrera, Dani Garcia izango da eskualdekoen entrenatzaile berria; guztira 12 neska ariko dira taldean



Hegoaldeko neskek 2006-2007 denboraldiko lehen entrenamendu saioetan. E. EZEIZA

izango da, hilaren 14an, 20:30etik aurrera.

## Aldaketak

Ohorezko mailan jokatzeko dute eskualdekoek, eta joan den denboraldian zazpigarren postuan geratu ziren. Orain, entrenatzaile eta taldekide berriekin ekingo diote jardunaldiari. Izan ere, denboraldia amaitzean, puntu asko oraindik zehazteke zeuden. Besteak beste, entrenatzailea nor izango zen eta zenbat taldekide jarraituko zuten. Hala, oraingoan, 12 neskek osatzen dute taldea, nahiz eta besteren bat ziurtatzeke geratu den. Horietako gehienak beteranoak dira, baina jokalaririk berriak ere gehituko dira.

Orain, Dani Garcia hartu du Vicky Amilibiaren lekukoa, eta bera izango da Hegoalderen entrenatzaile. Oraingoan taldearekin «kontaktu hartzen eta ezagutzen» ari dela dio berak.

## ESTI EZEIZA

Bi hilabeteko atsedenaldiaren ondoren, berriro hasi dira lanean Hegoaldeko neskek. Hiru aste daramatzate entrenatzen, eta Ohorezko Mailako lehenengo partida hil honen 23an, etxean jokatuko dute, Valladolidekoen aurka.

Hala ere, txapelketa hasi baino lehen, lagunarteko partida batzuk jokatuko dituzte. Hauek bat, Laskoraingotik mutilen aurkakoa izango da. Norgaiak goka datorren ostegunean

DANI GARCIA ▶ HEGOALDEKO ENTRENATZAILEA

## «Taldea gogorra da, borrokalaria, eta konfidantza handikoa»

Dani Garcia (Valladolid, Espainia, 1975) entrenatzaile titulatu da, eta bere herrialdeko areto futbol talde onenekin egin du lan.

### Nolatan Valladolideko entrenatzaile bat Tolosan?

Oso erraza da, nik kanpora atera nahi nuen. Italia, Portugal eta abarretan begira aritu nintzen. Eta gero aukera hau suertatu zitzaidan. Hala, Ohorezko Maila izateak eta nesken talde bat entrenatzearen esperientziak erakarri ninduen, eta hona etortzea erabaki nuen.

### Garaipena lortuko al duzue?

Ez nator irabazteko helburuarekin, alderantziz, esperientzia berri bat bizi nahi dut. Nire xedea kiroltasuna da. Valladolideko (Espainia) areto futbol talde oraindik geratu gabe baitago.

### Emakumeak entrenatzen dituzun estreinako aldia da.

Bai, eta oso ongi. Hala ere, oraindik gauza gutxi egin ditugu, arlo fisikoa lantzen hasi gara eta... Egunez egun joan behar dugu, oraindik jende gutxi gaude, eta piskanaka hauek ezagutzen ari naiz.

### Zer moduz ikusten duzu taldea?

Garaiz da, bi egun bakarrik daramatzagu, baina ongi. Lan handia egiten dute, eta indartsu ikusten ditut. Desberdintasunak daude, alde batetik, taldekide berriak, gazteak daude, eta hauek gogotsu datoz. Bestetik, urte asko daramatzatenak daude, eta hauek ez dute horrenbesteko ilusiorik. Beste aldetik, etxean oso indartsua izango dela deritot,

eta kanpoan berriz ez horrenbeste.

### Aurreko denboraldian hasiera txarra izan zuen Hegoaldeko, azken sailkapenean eraginaz.

Bai, hasiera garrantzitsua da. Eta horrek kezkatzen nau, niri gauzak ongi antolatzea gustatzen zait, baina oraindik taldekide guztiak ez ditugu batu, eta ez dugu gehiegi entrenatu.

### Hasteko gogoia bai, baina beldurrik?

Ez, inolaz ere ez, talde gogorra baita, borrokalaria eta konfidantza handikoa.

### Nola definitiko zenuke Hegoaldeko?

Oso talde berezia da, bertako jendea bakarrik du, ez dute atzeritarrik hartzen... Zerbait dauka, Athletic bezala, gai-



E. EZEIZA

nontzeko taldeetan bat edo bi kanpokoak dira, eta hemen ez. **Aurreko denboraldian zazpigarren, oraingoan?**

Ez dakit, baina espero dut gorago geratzea.

### Entrenatzaile bezala, zein ezaugarri baloratzen duzu talde batean?

Diziplina, taktikoki zein kiroltasunean. Talde langile eta borrokalaria gustatzen zait. ◀

## hilberria ▶

### Pedro Mari Aizpurua Fernandez

2006ko irailaren 6an hil zen, 74 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Golan bego—



Bere emaztea: M<sup>a</sup> Angeles Agote Murua ; seme-alabak: Juan Joxe eta Katalin, Pello, Jesus Mari, Marian eta Antonio ; bilobak: Daniel, Andoni, Aingeru eta Elaia; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu eta gainerako ahaideak  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko 18:30ean, Zarauko aita FRANTZISKOTARREN elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ San Frantzisko 27,4.C

oharra ▶ Hilbeila Zarauko Tanatorioan dago.

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

# Baserrietako ondarea biltzeko asmoz, Argia Beka aurkeztu dute

Hilaren 15a izango da aurkezteko azken eguna; beka nori eman zaion Zizurkilgo Azoka Berezian jakinaraziko dute



Zizurkilgo baserrietako ondarea jasotzea izango du helburu I. Baserriko Argia Bekak. J. AZKUE

## I. BASERRIKO ARGIA BEKA ▶ EZAUGARRIAK

### IKERLANA

**Jatorrizkoa.** Ikerlana euskaraz egin behar da, eta jatorrizkoa izan beharko du.

**Gaia.** Zizurkilgo baserri eta herriko argazkiak izango da gaia. Udalak berak gomendatutako baserrietara joan eta bertakoek emandako argazkietako jendearen izen-abizenak, lekua eta data jaso beharko dira.

**Argazkiak.** Biltzen diren argazkiak digitalizatu eta CD batean gorde beharko dira eta argazki bakoitzarekin fitxa bat bete, argazkiaren jatorria (non eta noiz eskuratu den argazkia), argazkia ateratako data eta argazkian agertzen diren leku eta pertsonen datuak zehaztuz.

**Aurkezpena.** Biltzen diren argazkiak paperean eta digitalizatuta gordeko dira eta argazki bakoitzak bere fitxa beteta izan beharko du.

Argazkiak zenbatuta sailkatuko dira eta aurkibide garbi bat prestatu beharko da, argazkiak urteen arabera sailkatuz.

### PARTE-HARTZAILEAK

**Bakarka edo binaka.** Ikerlana bakarka edo biko taldetan egin daiteke. Binaka eginez gero taldeko arduraduna izendatu beharko da, haren ezaugarriak baloratuko dira eta berak izango du lanaren ardura nagusia. Hala ere, taldeko partaide guztiek bete beharko dituzte gutxieneko baldintzak.

**Baldintzak.** Parte-hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte: LH II-ko titulazioa edo baliokidea izatea gubhienez; euskaraz ondo jakitea: 3. Hizkuntz Eskakizuna edo baliokidea eskatuko da; baserri giroa hurbiletik ezagutzea; oinarriko informatika ezagutzak izatea

### AURKEZTU BEHARREKOAK

**Epea.** Proiektua irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar da. **Agiriak.** Beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten eta merituko baloratzeko agiriak aurkeztu beharko dira, NAren kopia, Curriculum eta harremanetarako datuekin Zizurkilgo Udala Aurrera plaza, 3. 20.159 Zizurkil helbidean.

### BALORAZIO IRIZPIDEAK

**Epaimahaia.** Zizurkilgo Alkateak, Kultura Batzordeko Buruak, Nekazaritza Batzordeko Buruak, Nekazaritza Teknikariak eta Kultura Teknikariak osatuko dute.

### Balorazioa:

- ▶ Gehienez 8 puntu lortu ahal izango dira.
- ▶ Baserri munduarekin harremana, gehienez 3 puntu.
- ▶ Zizurkilgoa izatea 2 puntu.

### IÑIGO TERRADILLOS

Zizurkilgo Udalak abian jarri du herriko baserrietako ondarea jasotzea helburu izango duen I. Baserriko Argia Beka. Udalak beharrezkoa ikusi du ekimen hau bultzatzea eta «zizurkildar guztiontzat aberasgarri» izango den azterlana herriarren esku jartzea.

Zizurkilgo baserriak eta argazkiak izango da landu beharreko gaia, eta horretarako, Udalak berak gomendatutako baserrietara joan eta bertakoek emandako argazkietako jendearen izen-abizenak, lekua eta data jaso beharko dira. Ikerketa bakarka edo biko taldetan egiteko aukera izango da, eta aurkezteko asmoa dutenek proiektua hilaren 15a baino lehen eman beharko dute.

Bestalde, beka-saria nori emango zaion Zizurkilgo Azoka Berezia ospatzen den egunean jakinaraziko dute eta hautatuek zazpi eguneko epea izango dute bekaren onarpena sinatzeko. Behin beka egokitu zaionaren esku egon ondoren, ikerlana egiteko sei hilabeteko epea izango du, hau da, 2006ko azaroaren 1ean hasi eta 2007ko apirilaren 30ean bukatu. Beka hartzaileak edo hartzaileek 800 euro kobratuko dituzte hilean azterlana egiteagatik.

Baserriko Argia Bekan proiektua aurkeztu nahi dutenek zalantzaren bat izanez gero, argibideetarako 943 69 24 95 telefono zenbakira deitu ahaliko dute, edota bulegoa@zizurkil.com helbide elektronikora idatzi bestela.

- ▶ Informatika ikastaroak, gehienez 2 puntu.
- ▶ Hizkuntz Eskakizuna izatea, puntu 1.

### BEKA-SARIA

**Beka.** Beka hartzaileak/ek 800 euro kobratuko dituzte hilean, 2006ko azaroan hasita. **Hartzailea.** Beka-saria nori eman zaion Zizurkilgo Azoka Berezia ospatzen den egunean jakinaraziko da eta hautatuek zazpi eguneko epea izango dute bekaren onarpena sinatzeko.

**Lana egiteko epea.** Ikerlana egiteko sei hilabeteko epea izango dute hautatuek: 2006ko azaroaren 1ean hasi eta 2007ko apirilaren 30ean bukatu.

### ARGIBIDEAK

- ▶ Argibideetarako: bulegoa@zizurkil.com helbidea edota 943 69 24 95 zenbakia.

KIROLAK ▶

## Tolosa kupeko zozketa egingo dute gaur

Gaur egingo dute Tolosa kup-eko bilera, 18:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian. Bertan egingo dute baita ere izena eman duten taldeen arteko zozketa ere.

MUSIKA ▶

## Himnoaren entsegu orokorra gaur Beotibarren

Herriaren sorreraren 750. urteurrena dela eta Orfeoia datorren larunbatean, hilaren 16an, Tolosa kantua kontzertua eskainiko du, eta bertan Enrike Ugartek konposatu eta Karlos Linazasorok idatzirikoa himnoa kantatuko dute. Horretarako herriarren parte-hartzea eskatu dute Orfeoitik, eta gaur 20:30ean Beotibar pilotalekuan egingo duten entsegu orokorrera animatu nahi dituzte.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza: 948 221015
- ▶ Taxis: 670420
- ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

### Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

JAIK ▶

# Festen lehen ekitaldiak

Zizurkilen eta Alkizan hasi dira festak eta haurrak izan dira protagonista



Lokotx-bilketan ederki saiatu ziren Alkizako haurrak. I. GARCIA



Haurrek bota zuten atzo goizean txupinazoa Zizurkilen. HITZA

IMANOL GARCIA

Abian jarri dira Zizurkil eta Alkizako jaiak. Egunean zehar protagonistak haurrak badira ere, Zizurkilen esaterako, protagonismo handiagoa izan zuten atzokoan, txupinazoa bota baitzuten haur talde batek goizean, bertso eta guzti: *Zizurkilgo festetan / denak alaituta / zahar eta umeak / guztiz harrotuta / gaztetxoak berriz / seko mozkortuta / goazen denak festara / lepotik helduta.*

Giro horrekin heldu zieten festari eta lehenengo ekitaldia ohikoa bihurtzen ari den Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia izan zen. Joxe Arregi plazan kokatutako eszenato-

kiaren aurrealdea guztiz bete zen bai hurrekin bai beraiei laguntzera joandako gurasoekin ere.

Alkizan herenegun gauean *Oilategitik* herri aldizkariaren zenbaki berria aurkeztu zuten. Hori izan zen festetako lehen ekitaldia eta atzo haurren txanda izan zen. Arratsaldean jolasak egin zituzten plazan, urte guztietako haurrek parte hartuz. Lokotxak, zaku karrerak... Gironik ere ez zen falta Ernio azpiko herrian. Bihar, besteak beste, jubilatuen txanda izango da, bazkaria izango baitute Otsamendi jatetxean. Zizurkilen, esaterako, Marrazki Lehaketako sari banaketa egingo dute, 13:00etan.

**OSTATUA**

- Egunko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta **aste guztian zehar**  
Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

**hitza**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Komunikazioa eta Euskal Filologia lizentziaturretako Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

**Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira**

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:  
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



Pirritx eta Porrotxen emanaldian haur ugari bildu zen Zizurkilen. I. G.

ASTEASU ▶

## Vilenicako literatur jaialdia zabaldu du Atxagak

Esloveniako jaialdiko hizpide nagusia euskal literatura garaikidea da

ERREDAKZIOA

Euskal literatura garaikidea izango da aurten Esloveniako Vilenica International Literary Festival jaialdiko hizpide nagusia. Bernardo Atxaga idazle asteasuarrak zabaldu du jaialdia *Anthology of Basque Literature* liburuaen aurkezpenaren kariatara. Atxagaz gain, hainbat euskal idazlek parte hartuko dute nazioarteko literatur jaialdi horretan. Etzi arte iraugo dute ekitaldiek.

VILLABONA ▶

## SOS Balcanes-ek «ez du zerikusirik» diru bilketarekin

Villabonan Bosniako haurren izenean dirua eskatzen ari direla eta, SOS Balkanes Gobernuz Kanpoko Erakundetik «argi eta garbi» utzi nahi dute «berri honek sortzen digun harridurarekin batera, gure elkartarekin lotura zuzena duen jendeak ez duela inolaz ere ekintza honekin zerikusirik». Elkar-teak gaineratu duenez, «atez ate dirua eskatzen joatea ez da inolaz ere gure lan egiteko modua, ezta gure kanpainetako bat ere, eta hortaz, ez dugula gertatutakoarekin zerikusirik ezta erantzunkizunik ere».

ANOETA ▶

## Autobusa doan Ernioko erromerirako

Ernioko erromeriak direla eta, Anoetako Udalak autobus bat jarriko du, doan, Alkizaraino joateko, hirugarren igandean, hilaren 17an. 09:00etan aterako da plaza-tik eta buelta 18:00ak aldera izango da (euria egiten bada, 14:30ak aldera). Izena emateko, hilaren 14a baino lehen Ikastolan edo udaletxean.

### TOLOSALDEKO KOMUNIKABIDE ENPRESA BATEK KUDEATZAILEA behar du (Erref.: o6-THK)

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (ustiapen ekonomikoak, finantzak, fakturazioa, harpidetzea eta diru iturri berrien sustapena, giza baliabideak, diru laguntzak...), eragileekin izan beharreko harremanen kargu egingo den kudeatzaile baten bila gabiltza.

#### Eskatzen da:

- Kontuan hartuko da Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculum-a bidali, irailaren 13a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: gizabaliabideak@jarduna.net  
Posta helbidea: Jarduna, S.L., (Giza Baliabideak Saila)  
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 - Andoain

IKER KARRERA ▶ MENDI LASTERKARIA

# «Palentziako proba udan egin dut, eta ia izututa nago: oso gogorra da»

Korrikalari amezketarrak Espainiako Kopako Mendi Lasterketako laugarren proba egingo du, etzi



N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Iker Carrera lasterkaria Palentzian (Espainia) izango da etzi, Euskadiko selekzioarekin Espainiako Kopako 4. proba korrituko baitu bertan. Lasterkari amezketarra lehen postuetan dabil, onenen artean, 124 punturekin. Sailkapen nagusian bosgarren dago.

**Gogor prestatu al zara udan?** Bai, beti bezala. Palentziako proban pentsatzen une oro. Udan astebetetz lasterketa izango den lekuan egin nuen korrika, Santibañez de la Peña herritik aterako den maratonia egiten, alegia.

**Zer nolakoa izango da proba?**

Maratoia da, 42 kilometro, hortaz. Ibilbidea egin nuen eta, egia esan, izututa geratu nintzen. Oso gogorra da, 6.000 metroko gorabehera du; 2.000 metroko tontorra igo beharra dago, eta gero azken 10 kilometroak jaitsi egin behar dira. Korrika egiteko arriskutsua da: harri asko dauka, kareharria da han dagoena, harkaitza zartatua. Horrez gain, beheko aldean txilarra eta zaborra dago. Astuna, korrika egiteko.

**Eguraldiarekin arazoak izango dituzue?**

Ez dut uste. Lehorra da, eta altuera handia dauka. Arazoa goiko aldean izan daiteke, tontorrean, haizea ateratzen bada.

Han ematen badu, dezentekoa izan daiteke. Baina iraila izanda ez dut uste bero arriskurik egongo denik.

**Beraz, prest zaude joateko?**

Bai... Baina egia da ere, maratonia gorpuzteaz izorratuta ailegatuko garela bukaerara, baina buruz ere ondo iristen ez bazara akabo. Erraza da desanimatuta iristea.

**Zeintzuk dira faboritoak?**

Bi edo hiru katalan oso ondo dabilzta. Raul Garcia da faborittoa, Tofol Castanyerrekin batera. Hauek dira sailkapenean lehenengo biak. Euskadiko selekzioan dagoen Fernando Etxegarai ere han ibiliko da, eta oso ondo dagoela esaten dute.

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

## Udala eta baserritarrak: «eskerrik asko denei»

19.200 euro lortu dituzte jai berezian, erretako baserria konpontzen laguntzeko



Sutearen ondorioz, Eztiola baserria suntsiturik geratu zen. N. URBIZU

## N. URBIZU

## Jai arrakastatsua

Bidegoiango Udalak uztailearen 29an Bidegoianen errezen baserriari laguntza ekonomikoa emateko jai berezi bat antolatu zuen. Egundorretan 19.200 eurotik gora lortu zituzten, eta guztia kalteak jasauz zituen baserria konpontzeko izango da.

Alkateak Udalaren eta baserritarren partetik eskerrak eman nahi izan ditu «hara gerturatu ziren guztiei, beraiei esker diru kopuru polita lortu baita». Izan ere, Eztiola baserria «erabat suntsituta geratu da, teiltatua bakarrik erre dela dirudien arren», zioen alkateak.

«Balorazioa ona izan da», Juan Ugarte alkateak esan zuen bezala. «Jendea ondo portatu zen, festa ondo joan zen ere, eta afarian 400 lagun bildu ginene».

Oraindik ere bi familia kalteuek asko behar eta eskertuko duten laguntza emateko kontu zenbaki bat ere badago: 2101 0067 2001 2549 8733 Kutxa kontua, hain zuzen ere.

Herri kirolak izan ziren arratsaldean: Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolariak, Aimar Irigoien eta Urtzi Telleria harri-jasotzaileak, txingak, lokotx bilketa, ingudea eta korrika saioak izan ziren.

Bertsolariak ere ibili ziren ondoren: Peñagarikano, Loidisaletxe eta Arkaitz Zelaia, hain zuzen. Pilotalekuko afaria arrakastatsua izan zen; izan ere, 400 lagun bildu ziren. Bertan, herriko soinu-joleek eta bertsolariak alaitu zuten egonaldia.

## ZUZENKETA ▶

Atzoko alean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Bedaioko festen egitarauaren barruan informazioa oker eman zuen. Izan ere, Erasun segalariak ez du saiorik egingo; Bedaion omenaldia egingo diote herri kirol saio batekin batera. Barkatu eragozpenak.

hitza

Harpidedunen  
txokoaZORIONAK eta eskerrik asko  
HITZA aukeratzeagatik!

Coti eta Bide Ertzean



Irailak 9, Larunbata  
22:00etan  
Tolosako zezen plazan



Tolosaren 750. urteurrenaren ospakizunen baitan burutuko den kontzerturako HITZAK zozketatutako bina sarrearen irabazleak:

Miguel Mari Aurkia Aiestaran (Berastegi)  
Oihana Agirre Iraeta (Belauntza)  
Idoia Mendibil Lopetegi (Ibarra)

Irabazleek sarrekerak lehiatilan jaso behar dituzte

IBARRA ▶ KIROLA

# Kirol ikastaroetarako izen-emate zerrenda zabaldu dute

Urtero moduan, hiru hilabeteko ikastaroak antolatu ditu Belabietako kiroldegiak

MADDI SOROA

2006-2007 denboraldian Belabietako Kiroldegian burutuko diren kirol ikastaroetan izena emateko zerrendak zabaldu dituzte jada. Interesaturik daudenek kiroldegira gerturatu eta bertan eman beharko dute izena. Gogoratu izen emateko epea gaurtik aurrera izango dela eta ez duela amaiera epeirik.

Ikastaroak urrian hasiko dituzte eta urtero moduan hiru hilabeteko iraupena izango dute; urritik abendura lehenak, urtarriletik martxora bigarrenak eta apiriletik ekainera azkenak. Prezioak ikastaro motaren arabera izango dira.

Informazio gehiago nahi duenak kiroldegian eskura dezake, 943 67 15 44 zenbakian.



luz antolatu zuten yoga ikastaroko irudia. HITZA

## ORDUTEGIAK ▶

### Aerobika:

▶ Astelehen eta asteazkenetan, 19:30ean edo 20:30ean.

▶ Astearte eta ostegunetan, 09:35ean edo 20:30ean.

### Spinning:

▶ Astelehen eta asteazkenetan, 15:30ean, 19:30ean edo 20:30ean izango dira.

▶ Astearte eta ostegunetan 09:30ean, 19:30ean edo 20:30ean.

### Yoga:

▶ Astelehen eta asteazkenetan, 10:45ean, edo 18:15ean.

▶ Astearte eta ostegunetan, 15:15ean.

### Mantenimendu gimnastika:

▶ Astearte eta ostegunetan, 19:30ean.

### 3. adinekoentzako gimnastika:

▶ Astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etan

## POLITIKA ▶

### Eskualdeko kontzentrazioa Tolosan

Gaur, 19:30etik aurrera, eskualdeko kontzentrazioa izango da Tolosako PSOren egoitzaren aurrean. Aipatu deialdia Euskal Herri osoan egingo da. Deialdia Etxerategin egin izan da eta honako lelopean ospatuko da: *Bizi osorako espexxe zigorrik ez. Iñaki txera.*

## ERLIJIOA ▶

### Ama Birginaren jaiotzaren aldeko meza

Gaur Ama Birginaren Eguna izanik, bere jaiotzaren aldeko meza ospatuko dute, etzi. Izaskungo ermitan, 11:00etatik aurrera.

Esan bezala, izatez gaur da Ama Birginaren Eguna, baina ohi bezala, hileko bigarren igandean burutuko dute haren aldeko meza.

## IBARRA ▶

### Alurrek, italiako zozketako saria banatu du

Pasa den ostiralean burutu zen Alurrek Italiara eginiko bidaia finantzatzeko salduzko txartelen zozketako sari banaketa.

Izaskun Apeztexea suertatu zen zozketako garaile, baina haren seme Aitor Maiza izan zen saria jaso zuena. Saria, Bizkaiko Ibarregelu herrian kokatzen den Gametxo hotel ederrean asteburua pasatzeko aukera izan da.

Alurrek, mota honetako zozketen «egiazkotasuna» frogatu nahi izan du, «askotan uste baita horrelako sariak ez direla banatzen».



Aitor Maiza, Alurreko partaideen eskutik saria jasotzen. HITZA

## ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 638 18 52 05.

**Zaintzailea.** Emakume bat behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, 08:00etatik 11:00etara. 667 45 51 76.

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako.

**Lanegun osorako.** 677 32 99 34.

**Tabernaria.** Asteburuetan tabernan lan egiteko pertsona behar da. 615 78 90 06.

### Tabernaria.

Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

### SALGAI

**Furgoneta.** Furgoneta salgai. California 2,5 TDI.Extrak. 50.000 km. 2003koa. Interesatuak deitu 685 75 17 43.

**Pisua.** Pisu berria salgai Ordizian: sukaldea, egongela, 2 logela, 2 komun, terraza eta trasteroarekin. 49.000.000. Deitu 686.95.90.64ra



**ELDUAIN**  
**ELDUAINGO UDALAK**

**HERRIKO JAIETARA  
GONBIDATZEN  
ZAITUZTE  
EKITALDI UGARI,  
MUSIKA MUNDIALA  
AFARI ZEIN BAZKARI  
GOXO GOXOAK**



**KONTZEJU  
TABERNAK**

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Taloak oinarri izanik, festa eguna, bapo

## Nafarroako Herriz Herri Txapelketako 4. saioa ere igandean egingen dute

JAIONE ASTIBIA

Igandean festa egun berri bat egingen dute Leitza. Taloaren Eguna. Euskal jakietan tradiziozkoa, ez hain aspaldi oinarri izandako taloa aitzaki eta oinarri hartuta, jaki horren inguruan eguerdira arte beteko ekitaldiak antolatatu ditu Plazaola Partzuergo Turistikokoak, Udalaren babesarekin.

«Leitza taloarekin aparte lotura dagoela ohartu ginen. Herrian hiru talogile talde daude, hauen artean enbasatutako taloak egiten dituen aurreneko lantegia ere bai, eta horretaz baliatuz, otu zitzaigun horren

inguruan zerbait egin zitekeela; herrira jendea erakartzeko modu bat», azaldu zuten bere garaian antolatzaileek, Taloaren Egunaren nondik norakoei zegokienean.

Horrela, igandean 10:00etatik aurrera, goiz guztian zehar taloak izanen da festaren ardatz: salmenta eta dastaketa, lehiaketak, plater erakusketak. Gainera, bitartean, herri kirolak ikusteko aukera ere izanen dute bertara biltzen diren lagunek, izan ere Nafarroako Herriz Herri kirol Txapelketako 4. eta azken saioa, bertan jokatu dute.

Bitartean, esan bezala,



Taloaren Egunaren aurkezpenean, Ezkutari eta Aierdi, Partzuergoko kudeatzailea eta lehendakaria, eta Lazkano Leitzako zinegotzia. HITZA

10:00etan irekiko dute merkata. Herriko hiru talogileek postu bana jarriko dute; Villabonak, Saralegik eta Talotegiak beren talo bereiztasunak jarriko dituzte salgai. Hauekin batera, Plazaola Partzuergoko kide diren artisauek ere beren postuak jarriko dituzte. «Zonaldeko artisaunen produktuak erakusgai eta salgai ere jarriko dituzte artisauek beraiek, eta gazta desberdinak, zurezko lanak, ezta, zeramika, sagardoa izanen dira». Goiz guztian zehar zabalik egonen dira postu hauek denak, beraz.

Eta 11:00etatik aurrera tailerrek egiteko aukera izanen du

nahi duen guztiak: «Familienezko eta batez ere umeentzako lehiaketa tiki bat ere antolatuko dugu, zeinek talorik egokiena eta hoberena egin. Epaimahai bat egonen delarik, irabazleek Plazaolako eta artisaunen produktuak jasoko ditu saritzat», zehaztu dute.

### Plater berriak taloz

Bestalde, Karrapean, herriko 7 ostalarik, egun honetarako prestatuko dituzten eta «talo oinarri izanik, nahi duten osagaiekin platerak asmatu dituzte eta jendaurrean jarriko dituzte erakusgai», zerekin eta

nola eginda dauden azalduko dute bertan. «Herritarren parte-hartzea bulkatzea» omen du helburu aurreneko aldiz egingen den talo plater erakusketa horrek.

Herriko jubilatutako elkarteek ere bere ekarpena egingen du festa honetan, gizezkoek soskor-bilketa saioa eginez eta emakumezkoak, berriz, arto jalkitzen ariko dira goizean zehar eta.

### Herri kirol saioa

Eguna borobiltzeko, herri kirol saioa izanen da; froga garrantzitsua izanen da hori gainera. Nafarroako Herriz Herri Txapelketako finalerako sailkapenerako baliagarria den azkena izanen baitute parte-hartzaileek: Ultzama, Gure Txoko, Igantzi eta Garraldako taldeak ariko dira lehia. Bi multzotan banatuko dituzte: aurrenekoan, soskor-biltzaileak, zakulariak, aizkolariak, laisterkariak eta arpanlariak ariko dira; bigarrenean, ingude altxatzaileak, harri-jasotzaileak eta txingalariak. Hori 12:30etik aurrera izanen da, ordea. Bitartean, taloak on!

ARESO ▶ HEZKUNTZA

# Larrialdietarako irteera egiten ari dira eskolan

## Atzo auzolanean gelak prestatu zituzten eta gaur hastekoak dira eskolan bertako ikasleak

J. ASTIBIA

Azkenik gaur dira hastekoak eskolan herriko ikasleak; ikastetxean larrialdietarako irteera egiten ari dira eta hor jarriko duten gela irekitzerik ez zegoen eta.

Aresoko eskolan, beheko solairuan, larrialdietarako irteera egiten ari dira egun hauetan

herriko bi langile; solairu horretako gela handiko leihoak baliatuz, larrialdietarako irteera egiten ari dira, eskola atzean dagoen jolaslekura ateratzeko arrapalarekin. Goranzko arrapala izanen da; eskolako gela hauek erdi-sotoan daude eta ondorioz leihoak atariko lurraren parean. Horrela, leihoa ate bihurtzeko, kanpoko lurra ere



Sotoko gela handiko leiho zuloaz baliatuz egin dute larrialdietarako atea herriko eskolan. J. ASTIBIA

kendu behar izan dute eta arrapala egin. Atzo atea jarrita zegoen, kristalak jarri beharrean, eta atariko lanetan ari ziren.

Hain zuzen ere, lan hauek di- rela eta, eskolak atzo hasteko-

ak baziren ere, gaurra atzeratu dute ikasturteko aurreneko eguna. Edozein moduz, ikasle zaharrentsuenak eta beren amak eskolan lanean aritu ziren atzo goiz osoan zehar irakasleekin batera, berta-

tik egindako laguntza eskaerari erantzunez: larrialdietako atea egin duten gela hori, Haur Hezkuntzako izanen dena, garbitu eta bertara beharrezko altzari eta materialak jaitsi eta txukuntzen aritu ziren.



Auzolanean, aritu ziren atzo goizean, beheko gela hori gaurko prestatzen. J. ASTIBIA



# ALKIZAKO UDALA

## Festa Batzordea

FESTAK ONDO IGAROTZEA  
OPA DIZUE HERRIKO GUZTIEI  
ETA ETORRIKO ZARETENEI

San Martin enparantza z/g • 20494 ALKIZA • Tel.: 943 69 02 35



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko irailaren 8a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **24** hotzena **20**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Alpino Uzturre mendi elkarteak irteera antolatuta du Pirinioetara, asteburu honetan. Izen-ematea Gudari kaleko 5. zenbakian edo 943 65 27 89 telefono zenbakian. Prezioa: 40 euro.  
**Tolosa.** 20:30ean, Beotibar pilotalekuan Tolosako Himnoan parte hartu behar dutenentzat entsegua.  
**Tolosa.** Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du, Leidor zinema aretoa 750. urteurrenaren harira, 20:00etan.  
**Tolosa.** Bide Ertzean eta Cotti musika taldeek bihar zezen-plazan emango duten kontzerturako sarrerak salgai Servikutxan, edo 943 00 12 00 zenbakian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leizta.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.  
 21:00-22:00. *Zaharrak berri.*  
 22:00-23:00. *Street.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 'Pasio turkoa'

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Europako herrialde honen bitxikeriak eta parajeak jaso dituzte orangoan bi parte-hartzaileek euren argazkietan**



**'TURKIAN BARRENA' ▶**

**Nerea Lopetegi Garmendia (Leaburu).**

Turkiara egin du bidaiia uda honetan Nerea Lopetegi leaburuarrak. «Horrelako hainbat irudi bitxi ikusi ahal izan genituen Turkiako errepedeatatik barrena. Hala ere, nor oto bitxiago bera guretzat edo gu harentzat, jartzen duen aurpegiagatik. Hori da hori garraio modua aprobetxatzea, Euskal Herrian horrela betez gero errepedetako kamioiak, dabilzanen herenak», dio Nereak.

**'SANTA SOFIAREN ISLADA' ▶**

**Mikel Castro Urkizu (Berastegi).**

Berastegiko lagun honek ere Turkia aukeratu du udako oporretarako. Hala dio Mikelek: «Orain dela 500 urte baino gehiago eraikita, lenengo kristau eliza, gero mezkita musulmana, eta orain museo ederra. Ikusgarria egunez, gauez edo uretako isladan; bere garaian nola egin zen pentsatzeak bakarrik harridura sortzen duelarik».



**Ez hutsik egin seme-alabei**

Testuliburu eta ikasmaterialek guztiak **elkar megadendan**

**Testuliburu eta ikasmaterialek adituak**

www.elkar.com

**elkar**

Elkar iragartzen dugunak

ARRASATE - BAIONA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - IRUN - IRUÑEA - TOLOSA